9

Ayuntamiento | Udala
GIZARTE ONGIZATE, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA
ÁREA DE BIENESTAR SOCIAL, EDUCACIÓN Y JUVENTUD
irun
www.irun.org

**Gaia:** Mendekotasunen Prebentzioarako IV. Tokiko Plana, 2020-2024, onartzea (2020GEBS0008 espedientea)

**Egitateak:**

- Irungo Udalak, 2013tik 2017ra bitartean, Irungo Udaleko Adikzioen Prebentziorako III. Plana garatu zuen, 2013ko urriaren 30eko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartutako tresna. Indarraldia amaitu ondoren, plana ebaluatu zen, planaren aplikazioaren emaitzak ezagutzeko.

- Jarraian, IV. Plana onartzeko lanak garatu dira. Plan horretan, egoeraren diagnostikoa eta partaidetza-prozesua egin ondoren, dokumentua honela idatzi da:

1. Sarrera
2. Arau-esparrua. Plana eta haren jarduerak legez testuinguruan kokatzen ditu.
3. Esparru teorikoa eta esku hartzeko printzipioak
4. Udalerriaren azterketa soziodemografikoa. Gure hiriaren ezaugarri demografiko, ekonomiko eta sozial nagusien ibilbidea egiten du
5. Adikzioen egoera Irunen. EAEko eta udalerriko Adikzioen egoeraren azterketa egiten du
6. Gizarteak adikzioei buruz duen pertzepzioa
7. Lehentasunezko helburuak eta ildoak. Adikzioen fenomenoa tokian lantzeko helburuak jasotzen ditu
8. Programak eta ekintzak. Horrela, IV. Tokiko Plan honek 20 programa egitea aurreikusten du, horietako asko dagoeneko finkatuta daudenak eta gure udalerrian ibilbide luzea dutenak, eta beste batzuk, berriak, plan berri honekin argia ikusiko dutenak
9. Ebaluazioa. Azkenik, planak bere jardueren ebaluazio-sistema osoa, urtekoa eta bost urtean behingoa du.

**En relación con** la aprobación del IV Plan Local de Prevención de Adicciones, 2020-2024 (expediente 2020GEBS0008)

**Resultando los siguientes hechos:**

- El Ayuntamiento de Irun desarrolló durante los años 2013 a 2017 el III Plan de Prevención de Adicciones del Ayuntamiento de Irun, instrumento aprobado mediante acuerdo plenario de 30 de octubre de 2.013. Una vez finalizada su vigencia, se procedió a su evaluación de cara a conocer los resultados de la aplicación de dicho Plan.

- A continuación se han desarrollado los trabajos para la aprobación del IV Plan, en el que, previo el diagnóstico de situación y un proceso participativo, se ha redactado el documento que se estructura de la siguiente manera:

1. Introducción
2. Marco normativo. Contextualiza legalmente el plan y sus actuaciones
3. Marco teórico y principios de intervención
4. Análisis socio-demográfico del municipio. Realiza un recorrido por las principales características demográficas, económicas y sociales de nuestra ciudad.
5. Situación de las adicciones en Irun. Realiza un análisis de la situación de las adicciones en la CAPV y en el municipio.
6. Percepción de la comunidad en relación a las adicciones
7. Objetivos y líneas prioritarias. Contempla los Objetivos para abordar el fenómeno de las adicciones a nivel local.
8. Programas y Acciones. Así, este IV Plan local contempla la realización de 20 programas, muchos de ellos ya consolidados y con larga trayectoria en nuestro municipio, y otros, novedosos, que verán la luz con este nuevo Plan.
9. Evaluación. Finalmente, el Plan se dota de un sistema de evaluación completo, anual y quinquenal de sus actuaciones.

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Cristina Laborda Albolea CONCEJAL-DELEGADA (16/07/2020 09:54)
Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: DBHC-Q2NA-ZYF1-EKBB

**Argudioak:**

- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 68.1 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei dagokie, bakoitzak bere lurralde-eremuan:

a) *Adikzioen udal-plana eta, oro har, adikzioen inguruko programak eta jarduerak egin, garatu eta exekutatzea, lege honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, foru-planean xedatutakoari jarraikiz.*

- Lege horren 71. artikuluak honela definitzen ditu tokiko planak: adikzioen arloan udal-eremuan garatzen diren programen eta jardueren multzo ordenatua jasoko duen plangintza-, antolamendu- eta koordinazio-tresna, legea egiteko erabilitako irizpideei jarraituz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planaren edukiarekiko koherentzia gordez.

- Indarrean dagoen legeria betez, eta Adikzioen arloan hautemandako beharrizanei erantzuteko eta doitzeko plan eguneratu bat edukitzeko beharra ikusita, beharrezkotzat jotzen da horiek prebenitzeko jarduketen plangintza integralarekin jarraitzea.

Gizarte Ongizateko Aholku-Kontseiluaren Prebentzioko Batzordeari entzun ondoren eta Gizarte Ongizateko, Hezkuntzako, Musikako eta Gazteriako Informazio Batzordearen iritzia jasota, **erabaki hau onestea proposatzen zaio Udalbatzarrari:**

***1.- Onestea Mendekotasunen Prebentziorako IV. Tokiko Plana, 2020-2024, espedientean jasotzen den dokumentuaren arabera.***

***2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Planaren dokumentua publikoaren eskura egongo***

**Considerando los siguientes argumentos:**

- Según el artículo 68.1 de la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias, corresponde a los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en sus respectivos ámbitos territoriales:

a) *La elaboración, el desarrollo y la ejecución del Plan Local sobre Adicciones y, en general, de programas y actuaciones en esta materia, de acuerdo con las prescripciones contenidas en esta ley y en el Plan sobre Adicciones de Euskadi y, en su caso, en el correspondiente plan foral.*

- El artículo 71 de esa misma ley define los planes locales como el instrumento de planificación, ordenación y coordinación que recogerá el conjunto ordenado de programas y actuaciones que en materia de adicciones se realicen en el ámbito municipal, de conformidad con los objetivos y criterios inspiradores de la ley, y en coherencia con el contenido del Plan sobre Adicciones de Euskadi.

- En cumplimiento de la legislación vigente y vista la necesidad de disponer de un Plan actualizado que se ajuste y dé respuesta a las necesidades detectadas en materia de adicciones, se considera necesario continuar con una planificación integral de actuaciones para la prevención de las mismas.

Oída la Comisión de Prevención del Consejo Asesor de Bienestar Social y previo dictamen de la Comisión Informativa de Bienestar Social, Educación, Música y Juventud, **se propone al Pleno Municipal la adopción del siguiente acuerdo:**

***1-. Aprobar el IV Plan Local de Prevención de Adicciones, 2020-2024, según documento que obra en el expediente.***

***2.- Dar publicidad al anterior acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, con indicación de que el documento del Plan estará accesible***

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Cristina Laborda Albolea CONCEJAL-DELEGADA (16/07/2020 09:54)
Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: DBHC-Q2NA-ZYF1-EKBB

*dela udalaren web orrian adieraztea.*

*3.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean; hori guztia, egoki irizten den beste edozein errekurtso aurkeztetik at.*

Irun, sinaduraren datan.

*al público en la página web municipal.*

*3.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.*

Irun, a fecha de firma

GIZARTE ONGIZATEKO ORDEZKARIA
LA DELEGADA DE BIENESTAR SOCIAL,

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: DBHC-Q2NA-ZYF1-EKBB

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Cristina Laborda Albolea CONCEJAL-DELEGADA (16/07/2020 09:54)